# c.1770
## **Priñeneko**
mapa






Izena duena bada, izenik ez duena ez da. Hori dala eta, krokis edo mapatxo honi Priñeneko mapa deituko diogu portuko *Prim* tabernan egon zelako. Ez dakigu nork egin zuen. Noiz egin zen beste kontu bat da; idatzi izan da XVIII. mende hasierako dela, baina Konpainiako elizari Real San Joseph deitzeak gutxienez Jesuitak bota ostera atzeratzen du data -post 1767-. Bestalde, badirudi Isuntzako zubia hiru zutabetan altxatuta dagoela. Gaur daukaguna, berriz, arku bakarrekoa da zutabe biren gainean altxatua eta 1773rako amaitua. Xehetasunak alde batera utzita, esan genezake 1767-73 tartean egin zela mapatxoa. Badirudi ez gabiltza erratuegi, San Nicolas irlako ermita agertzen baita eta Iturrizarengandik dakigu 1794an hondatu zutela frantsesek erabiliko zuten beldur.

Ikusten duzuen hau argazki bat baino ez da, non ote dago originala?